

- **Nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien sektorean, «Euskabiom»**

- ✓ Bazkideak: Hazi eta Baso Jabetzako Eskualde Zentroa (CRPF Aquitaine), GEIE Forespir-ekin batera
- ✓ Aurrekontua: 60.501 €
- ✓ Diru-laguntza: 30.251 €

Proiektuak proposatzen du baso-jatorriko biomasa erabiltzea euroeskualdearen esparruan: erabileren arabera Euroeskualdeko eremuan eskuragarri dauden egur-bolumenen ikuspegi argia eta zehatza edukitzea eta biomasaren eta lurraldea hornitzeko filialen balio-katea aztertzea.

Proiektuaren berezitasuna da haren helburuak baso-ekoizpenaren eta -kudeaketaren, landa-garapenaren eta energia berriztagarrien eremuan jorratzen dituela, besteak beste, eta, horrez gain, ereindako basoaren bidez, Europako garrantzitsuenen artean dagoen baso-sektore bat dibertsifikatzen du.

- **Energia berriztagarrien sektorean (bi proiektu aukeratu dira), «BlueSARE» eta «AAOE»**

BLUESARE

- ✓ Bazkideak: Euskadiko Energia Klusterra eta Euskal Kosta-Aturri aglomerazio-elkargoa
- ✓ Aurrekontua: 90.500 €
- ✓ Diru-laguntza: 45.250 €

Helburuak dira itsas energia berriztagarrietara bideratutako euroeskualde-eskaintza bultzatzea, bertako enpresei eta antolatzaileei aukera ematea nazioartean sektoreko erreferente gisa posizionatzeko, azpiegituren eta plataformen ikusgarritasuna maximizatzea...

BlueSARE egitasmoak euroeskualdearen eremuan konektatuko ditu sektoreko eragile nagusiak, euroeskualdearen balio-katea itsas energien esparruan elkarrekin aztertzeke eta merkatu-aukerak analizatzeko.

Euroeskualdean sinergia eta dinamika berriak sortzera bideratuta dagoen animazio-programa bat dauka. Nazioarteko ekitaldietan batera bertaratzea (Marine Energy Week de Bilbao...)

AAOE : Acoustic around ocean energies

- ✓ Bazkideak: Energie de la Lune eta Azti Tecnalia
- ✓ Aurrekontua: 100.000 €
- ✓ Diru-laguntza: 50.000 €

Mugaz gaindiko dinamika batean oinarritzen da, ozeanoei eragiten dien arazo bat jorratzeko: itsas energiei lotutako teknologien soinu-igorpenak ulertzea. Asmoa da sistemen optimizazioa sustatzea, arintze-baliabideez hornitzea eta Europara eta nazioartera egokitutako legedi bati probetxu ateratzea.

Eraginak neurtzeko bi ekoizpen-plataforma esperimental proposatu dira ardatz gisa: BIMEP (Mutriku), energia hulomotrizera bideratuta, eta Bordelgo Port de la Lune, energia hidraulikora bideratuta.

Bi proiektu horiek «From Seanergies to Seanergy» 2015eko proiektu deialdiaren barnean finantzatutako lankidetzaren bidez eratu dira.

- **Itsasoko eta kostaldeko baliabideen sektorean, «Turquoise 00»**

- ✓ Bazkideak: UPV/EHU, Université de Bordeaux eta Université de La Rochelle
- ✓ Aurrekontua: 120.000 €
- ✓ Diru-laguntza: 60.000 €

Akitania Berriko eta Euskadiko unibertsitateak Bizkaiko Golkoaren hazkuntza urdinaren eta berrikuntza berdearen inguruan biltzea du helburu, itsas estazioak eta behatokiak sarean jarritz.

Xedeak dira ikerketaren, ozeanografia-prestakuntzaren eta itsas bioteknologiaren eremuan baterako ikerlanak sustatzea, berrikuntza teknologikoa piztea eta mugaz gaindiko sarea sortzea, hazkuntza urdinaren eta berrikuntza berdearen garapenean parte hartzen duten europar proiektuen deialdietara zuzentzeko.

Euroeskualdeak **900 km inguruko kostaldea** dauka, eta ozeanografia-ikerketako 3 laborategi handi bilduko ditu atlantiar kostaldean, eta, bide batez, Poitou-Charentes eskualde zaharraren eragile bat finantzatuko du.